

3. itzuli parekide bat : posible da !

Urtarrilaren 30ean, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak (IEHGK) bizi publikoko berdintasunaren aldeko Manifestua publikarazi zuen, Gizon eta Emazteen arteko berdintasunaren aldeko Batzordeak antolatutako Foroaren ondotik. Gizarte zibilak hautetsiak herriko bozetan eta Elkargorako izendapenetan berdintasunaren alde engaiatzera gonbidatzen zituen.

Herriko bozetako emaitzek aitzinamendu batzuk erakusten badituzte ere, bidea oraindik luzea da...

Epe laburrean, ihardukitzeko tenorea da ! Heldu diren egunetan Euskal Hirigune Elkargoan iraganen den hirugarren itzulia erreusitu beharko da: **Elkargoko kontseilu exekutiboan eta kontseilu iraunkorrean ahal bezainbat emazte izendatu beharko da.**

Gizarte zibilak Elkargoko ordezkariak dei egiten die **parekotasuna %100ean bermatzeko hautua egin dezaten !**

Mezu honi loturik, 50/50 Manifestua